

IKASTETXE GUZTIENDAKO JARDUERA KOMUNA. 2011KO MARTXOAN EGITEKOA.
JARDUERA MOTA: IKERKETA LANA + IKASTETXEETAN AZALPENA
JARDUERAREN EDUKIA: AUTONOMIA ETA ENPLEGUAREN ZENTRALITATEA

IKASTETXEA	Oihanzabal
HERRIA	Jauntsarats

1. JARDUERAREN PROGRAMAZIOA

<p>IZENBURUA/GAIA ETA JARDUERAREN DESKRIBAPENA</p>	<p>1. ZERGATIK EZ GIZON BAT? ZERGATIK EZ EMAKUME BAT?</p> <p>Etapa bakoitzeko ziklo bakoitzak, eskolan dauden langile guztiei argazkiak ateratzen arduratuko da. Horretarako lanbideak aurretik banatuak egongo dira.</p> <p>Ondoren ateratako argazkiak elkartuko ditugu eta erdibitutako panel handi batean jarriko ditugu, sexuaren arabera antolatuta.</p> <p>Bi taldeetan sailkatzeaz gain talde hauen barruan ere lanbideen arabera sailkatuko ditugu.</p> <p>Argazki guztiak jarrita daudelarik, azaltzen denaren analisia egingen dugu eta ondorengo galderak egingen dizkiegu ikasleei:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zergatik ez gizon bat? (garbitzaileen argazkian) • Zergatik ez emakume bat? (janari banatzailearen argazkian) • Zein lanbidee daude orekatuen? • Zeinetan aldatu daiteke? • Etb. <p>2. NORK EGIN BEHAR DU LANA LANBIDE HAUETAN?</p> <p>Zerrenda batean lanbide ezberdinak zerrendatuko ditugu eta ondoan, hiru zutabeetan, emakumezkoen lana, gizonetzkoena edo bien lanbidea den jarriko dugu.</p> <p>Taula, bi gela ezberdinetan jarriko dugu. Zikloka eta sexuka bereiztuta gelatan sartuko dira ikasleak eta gometxa bana jarriko dute, beraien ustetan lanbide hori egitea dagokionari.</p> <p>Ondoren amaitzean, ikasle guztiak elkartu eta taula biak aztertuko ditugu ateratako emaitzak ikusiz.</p>
<p>HELBURUAK IKUSPEGIA/TRANSMITITU NAHI DIREN IDEIAK</p>	<p>1.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zein da eskolan dagoen egoera, lanbide rolei dagokienez. - Zertan aurreratu dugu eta zertan hobetu edo alda daiteke. - Zergatik egonen dira emakume gehiago zenbait lanbideetan eta zergatik gizonak beste zenbaitetan. - Zer izan dezake eragina lanbide hauetan aritzeko aukeraketa egitean.

	<p>2.</p> <p>- Zein den gizarteak eta ikasleak bereziki, lanbide ezberdinak zein rolaekin harremantzen duen aztertu.</p> <p>-Gure hizkuntzaren bitartez, ez da lanbidea estereotipatzen (gaztelaniaz bezala: panadero, peluquera). Orduan, zergatik guk zuzenean harremantzen ditugu?</p>
<p>PARTE-HARTZAILEAK: IRAKASLEAK, IKASLEAK, FAMILIAK...</p>	<p>1. Ikasleak, irakasleak, jantokiko eta autobuseko zaintzaileak, autobus eta taxi gidariak, janari banatzailea, eskolaz kanpoko jardueren hezitzaileak, garbitzaileak, konponketen arduraduna.</p> <p>2. Irakasleak eta ikasleak.</p>
<p>BALIABIDEAK, MATERIALAK... ARGAZKIAK, OBJEKTOAK, ELKARRIZKETAK...</p>	<p>1. Argazki makina, argazkiak, panela.</p> <p>2. Zerrenda, gometxak.</p>

2. JARDUERAREN LABURPENA

<p>EGINDAKO JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA (argazkiak, irudiak... ere sartu)</p>	<p>1. ZERGATIK EZ GIZON BAT? ZERGATIK EZ EMAKUME BAT?</p> <p>Eta bakoitzeko ziklo bakoitzak, eskolan dauden langile guztiei argazkiak atera dizkio. Horretarako lanbideak aurretik banatuak egongo dira.</p> <p>Ondoren ateratako argazkiak elkartu eta erdibitutako panel handi batean jarri dira, sexuaren arabera antolatuta.</p> <p>Bi taldeetan sailkatzeaz gain talde hauen barruan ere lanbideen arabera sailkatu dira.</p> <p>Argazki guztiak jarrita daudelarik, azaltzen denaren analisia egin dugu eta ondorengo galderak egin dizkiegu ikasleei:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zergatik ez gizon bat? (garbitzaileen argazkian) - Zergatik ez emakume bat? (janari banatzailearen argazkian) - Zein lanbidee daude orekatuen? - Zeinetan aldatu daiteke? - Etb. <p>2. NORK EGIN BEHAR DU LANA LANBIDE HAUETAN?</p> <p>Zerrenda batean lanbide ezberdinak zerrendatu ditugu eta ondoan, hiru zutabeetan, emakumezkoen lana, gizonezkoena edo bien lanbidea den jarri dugu.</p> <p>Taula, bi gela ezberdinetan jarri dira. Zikloka eta sexuka bereiztuta gelatan sartu dira ikasleak eta "X" bana jarri dute, beraien ustetan lanbide hori egitea dagokionari.</p> <p>Ondoren amaitzean, ikasle guztiak elkartu eta taula biak aztertu ditugu ateratako emaitzak ikusiz.</p>
--	---

	<p>3. BIDEO-FORUM: “QUIERO SER COMO BECKHAM”</p> <p>Lehen Hezkuntza etapa osoarekin pelikula ikusi eta ondoren pelikulan azaldutako egoera eta esaldiei buruzko solasaldia egin dugu.</p>
<p>ONDORIOAK</p>	<p>1. ZERGATIK EZ GIZON BAT? ZERGATIK EZ EMAKUME BAT?</p> <p>Orokorrean balorazio positiboa egin dugu iharduera honi buruz. Ikasleek bakoitza bere mailan eta ezagutzen arabera espero genituen erantzunak eta analisiak egin dituzte. Oso argi ikusi dute zein lanbidetan oreka dagoen eta zeinetan ez. Eskolako lanbideen artean irakasleen taldea orekatuen agertzen dena da, baina besteetan aldiz: garbitasuna, zaintzaileak, gidariak, janari banatzaileak... oso estereotipatuak dauden lanbideak izaten jarraitzen dute.</p>
	<p>2. NORK EGIN BEHAR DU LANA LANBIDE HAUETAN?</p> <p>Tauletan agertutako emaitzak oso ezberdinak izan. Neskek erantzun duten tauletan oso argi ikusi da, beraien ustetan lan guztiak bai emakume bai gizonak egin ditzaketela. Mutilen taulan aldiz, oraindik ere erantzun asko egon dira, lanbideak sexuaren arabera sailkatu dituztenak.</p> <p>Oso esanguratsua izan da nesken taula eta mutilen taula elkartu ditugunean, beraien arteko aldea handia zela ikustea.</p>
	<p>3. BIDEO-FORUM: “QUIERO SER COMO BECKHAM”</p> <p>Filmea ikusten egon garen bitartean irakasleak asko harritu gara, ikasle guztiek zeinen ongi eta zintzo egon diren ikusten. 1. eta 2. mailako ikasleekin zalantza genuen ulertuko ote zuten eta bi ordu jarraian pelikula ikusten erne egonen ote ziren eta gure harridurarako oso ongi egon dira.</p> <p>Ondorengo erronda oso parte hartzailea izan da. Planteatu dizkiegun galderak, eta filmean agertu diren esaldiak aipatu ditugunena oso ongi ulertu eta beraien iritzia eman dute.</p> <p>Eskolan filmearen eragina egon dela iruditu zaigu, neskek gehiago aritzen direlako futboleak, eta mutilen jarrera jokatzeko bitartean aldatu delako. Jolasean gehiago onartzen dituztela dirudi.</p>